

TALAIAN

Multinazionalak, transgenikoak eta nekazariak

Joan den asteen, mundu guztiko nekazariak –baita euskaldunek ere– mobilizazioak egin zituzten elikadura eta nekazaritza sistema eskuratu nahi duten multinazionalen kontra. Elikadura-subiranotasuna eta nekazariak beren elikagaiak produzitzeko duten eskubidea exijitu zuten. Joan den larunbatean mundu osoan ospatu zen Nekazaritza Borroken Munduko Eguna. Madrilen milaka nekazari, abeltzain, sindikatu eta eragile sozial mobilizatu ziren –horien artean EHNE eta Mundubat–, erabateko ezetza adieraziz multinazionalen nekazaritza eta elikadura kontrolatzeari. Horrela, gogoan izan zituzten 1996ko apirilaren 16an, El Dorado dos Carajas herri brasildarrean, elikagaiak sortzeko eta lurra izateko eskubidea defendatzeagatik masakratuak izan ziren hemeretzi nekazariak.

Monsanto, Cargill, Archer Daniel Midland, Nestlé, Carrefour, Walmart eta beste multinazional batzuek kontrolatzen dituzte elikadura eta nekazaritza sistemak, lurra, haziak, ura... Transgenikoen erabilerarekin, osasuna kaltetzeaz gain, natura eta landa gunea deuseztatzen ari dira, nekazariak bultzatuz beren lurak uztera eta hirietako periferia handietara emigratzera, miseria eta pobrezia sufritzeko. Via Campesina, multinazionalen kontrako mugimendua bultzatzen duen nazioarteko elkarteak –hemengo eragileak ere badira–, eskualdeko eta herrietako merkatuentzat elikagai osasuntsuak produzitzearen aldekoa da, biodibertsitatea zainduz, akuiferoak babestuz, lurreko karbonoa mantenduz eta nekazaritza ekonomia biziberrituz. Euskal nekazariak, gainerako mundu guztiak bezala, eskubide horiek eskatzen dituzte. Globalizazio kapitalistaren kontra, elkartasunaren globalizazioa. Apustu alternatiboa da.

Juan Mari Arregi

Euskararen Jatorriaren V. Biltzarra

MAIATZAREN 15EAN Bizkaiko Arteaga herrian egingo dute bosgarren biltzarra. Aurten toponimia hartuko dute gaitzat. Luis Mari Mujika arituko da Araba, Errioxa eta Burgosko euskal toponimiaz eta Bienvenido Mascarayk iberiera hizkuntzaren interpretazioaz hitz egingo du. Arratsaldean Santimamiñe kobetara egingo dute bisita eta ondoren mahai-ingurua egingo dute Josu Naberan, Felix Zubiaga, Luis Mari Mujika eta Bienvenido Mascarayk.

Baztarrikaren “Babeli gorazarre”

PATXI BAZTARRIKAK, Hizkuntza Politikarako sailburorde ohiak, argitaratu du *Babeli gorazarre* liburua, Alberdania argitaletxearen eskutik. Hizkuntza aniztasunak bizikidetzat bermatzeko orduan duen garrantzia azpimarratu du liburuan.

BAHEA

Viatxeslav Txirikba abkhaziar hizkuntzalariak *Berrian* esanak: “Euskal hizkuntzalariak jarrera hori dute, euskara bakandua dela sinetsita daude, inolako harremanik gabea, hain zaharra da ezin da beste inorekin lotu. Batzuek harrotasun puntua ere badute horretan. (...) Hungariarren kasuan aurkakoa da, fanatikoak dira harremanetan, Siberiaraino doaz lotura bila; euskaldunak, berriz, bakardadeaz harro daudela ematen du. Egiaz, kanpoko ikerleek jarraitzen dute horretan, Georgiakoek, Abkhaziakoek, ingelesek, amerikarrak... baina ez euskaldun askok”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com

